



# ZUBIAK

*Celui qui prend un risque perd pied pour un instant, celui qui ne prend pas de risques perd sa vie (Kierkegaard)*

## Sommaire / Nun zer

- ✿ **3. or.** Congrès extraordinaire de Eusko Alkartasuna.
- ✿ **4. or.** Déclarations sur les élections européennes.
- ✿ **5. or.** Ingurumena: gure bazter ederrak.
- ✿ **6. or.** Peuples Frères : Congrès de R&PS en Bretagne.
- ✿ **7. or.** Txomin Peillen Euskal Pen Club-ak saritua.
- ✿ **8. or.** Sabin Intxaurragaren Elkarrizketa, hauteskundeei eta EAren kongresuari buruz.



Europe Ecologie-k emaitza bikainak europar hauteskundetan (4. Or.)

## GAIA / THEME Congrès extraordinaire de EA

### Koldo Amezketa

Ancien cadre d'entreprise, authentique Navarrais et abertzale historique, Parlementaire Navarrais et porte parole de la coalition abertzale Nafarroa Bai, est aussi, depuis peu, Vice Président d'Eusko Alkartasuna, chargé spécialement de mener à bien la tenue de son Congrès Extraordinaire qui se tiendra les 21 et 22 juin à Vitoria / Gasteiz. Il répond ici brièvement aux questions de Zubiak et nous l'en remercions.

**Quelle appréciation faites-vous, M. le Vice Président, des résultats des dernières élections européennes ?**

Pour le sud du Pays Basque, mon sentiment est modérément positif dans la mesure où, comme chacun sait, nous avons tout de même atteint l'objectif que s'était fixé la coalition *Europe des Peuples* dont nous étions membres, avec l'obtention d'un eurodéputé. Cependant le faible niveau de participation observé est bien négatif et les votes obtenus en

faveur de notre candidature sont bien moindres que ceux d'il y a cinq ans.

Pour ce qui concerne le nord du Pays Basque, la présence de EA dans la

coalition *Europe Ecologie* est réellement positive comme le sont les résultats obtenus.

(suite p. 2)



## Que pouvez-vous dire du Congrès extraordinaire d'Eusko Alkartasuna qui va s'ouvrir sous peu ?

La tenue de ce congrès est conséquence de la démission du Président et du Secrétaire général suite aux mauvais résultats électoraux du 1<sup>er</sup> mars dernier. Le congrès suppose l'actualisation du parti à partir de son rapport politique, en l'adaptant aux importants changements intervenus au plan politique et économique depuis 2007, mais en maintenant ses signes d'identité en vigueur depuis la fondation d'Eusko Alkartasuna et en adaptant de même sa structure organisatrice par certaines modifications qui étaient réclamées depuis le congrès de 2003.

D'ici les deux années qui nous séparent des prochaines élections municipales et forales, nous pouvons et devons dépasser la situation actuelle. Nous disposons d'un capital politique, d'un capital humain, d'énergies pour agir et une structure suffisante dans tout le Pays pour parvenir pour ces dates à améliorer sensiblement notre présence institutionnelle.

## Et en ce qui concerne le nord du Pays Basque ?

On peut toujours mieux faire. Nous devons améliorer notre présence et notre travail dans les diverses entités sociales qui œuvrent à rendre meilleure la société et plus concrètement avec tous ceux qui, comme nous, croient que de disposer d'un pouvoir politique propre est la bonne voie pour rendre meilleures les conditions de vie de la société. Le sentiment abertzale est en train de s'étendre en iparralde (côté nord) et c'est là le chemin à poursuivre, mais ce avec l'attention et le travail nécessaires pour solutionner les problèmes réels des citoyens.

## Votre point de vue sur le « groupe critique » ?

Ces dernières semaines, nous vivons des moments d'inquiétude suite à la décision qu'a pris un groupe d'ex militants gipuzkoar de quitter Eusko Alkartasuna et d'organiser un nouveau parti politique.

Ce que je dois dire en premier lieu, c'est qu'ils avaient cette idée depuis longtemps et que c'est à présent, à la veille du Congrès qu'ils l'ont menée au bout. Ils ont créé une campagne de fausses accusations pour instaurer le climat qu'ils ont jugé le plus propice pour quitter le parti. Toutes ces accusations ont été repoussées comme fausses et même inconsistantes.

Le fait de ne pas vouloir soumettre au débat leurs propositions à l'intérieur du parti, ni au Congrès, révèle leur caractère minoritaire et contraire au sentiment général des adhérents. C'est là un secteur minoritaire, présent exclusivement en Gipuzkoa et destiné à disparaître ou être absorbé par un autre parti. Sans avenir à moyen terme.



**Koldo Amezketa au premier plan, puis Carlos Garaikoetxea, Jesus Mari Larrazabal, Piarres Xarriton et Maiorga Ramirez**

Propos recueillis par J.P.

## NOUVEAU BLOG DE EA DE LAPURDI, BASSE NAVARRE ET SOULE

Eusko Alkartasuna vient de mettre en place un nouveau blog bilingue lui permettant notamment de diffuser ses réflexions sur l'actualité en Iparralde. La version électronique de la revue Zubiak y est aussi accessible.

Adresse du Blog : [www.ea-labenzu.org](http://www.ea-labenzu.org)



## LAPURDI BAXE NAFARROA ETA ZUBEROAKO EAK BLOG BERRIA DU

Eusko Alkartasunak Blog helebidun berri bat ireki du berriki. Bloga, besteak beste, Iparraldeko hiru probintzietan buruzko aktualitateari buruz dituen iritziak zabaltzeko erabiliko du.

Zubiak bertsio elektronikoa ere eskuragarri da blog horretan.

Horra blogaren helbidea: [www.ea-labenzu.org](http://www.ea-labenzu.org)

## 🌱 ELECTIONS EUROPEENNES 2009

Tout aura été dit sur ces élections européennes 2009 qui, d'un côté, nous font chaud au cœur avec les succès divers d'Europe Ecologie (2 députés pour notre circonscription électorale du Sud Ouest, José Bové et Catherine Grèze), un député corse en propre pour la fédération R&PS avec notre ami François Alfonsi du PNC et aussi la victoire de la coalition ERC, BNG, ARALAR, EA...

Mais divers enseignements sont encore à tirer au clair. Que la presse institutionnelle a tant de mal à analyser. Et pour cause! Comme cette haute abstention !!

Gure atsegin betea bai Europar hauteskunde hauk ematen daukutena. Izan ipar ala hego Euskal Herrian urrats bat egin bide du gu halere aintzina gisa bat edo bestez. Alde batetik alde huntan gure gogokoena zen *Europa Ekologia* zerrendak ez usteko arrakasta gaitza ukan duela, gure hemengo bozka eremuan berean bi deputatu ardiesteraino: José Bové eta Catherine Grèze, biak errotik ezkerreko ekologistak eta ere berdin euskal arazoari barnetik ohartuak. Bestaldetik EH hegoaldean ere *Herri Europa*-ko zerrendak bere deputatua igortzen duela ere Europako Parlamentura. Gainera, mugaz bi aldetako Euskal Herri hau aski hurbildik aspalditik ezagutzen duen François Alfonsi korsikarra ere Eurodeputatu hautetsia izan dela *Régions et peuples solidaires / Eskualde eta Herriak elkartasunez* elkarte federatuaren izenean Frantzia hego-iguzki aldean aurkeztu dena *Europa Ekologia* zerrendan.

Hauri gehitzen bazaie EAJ.k ere irabazi duen eurodeputatu anderea, badu oraino ere Euskal Herriak, osoan, zerbait aintzinzatzeko mentura ederra.

Guri dagokigu hemendik ere deputatu hoiengatik argitzea eta laguntzea, jada hain segur, buruan dituzten xedetan. Guri hurbil ditugu hortarako bi erakunde aski lantsu, bata jada aipatu R&PS federazioa, bigarrena ALE (Europako Aliantza librea), biak Eusko Alkartasunak sortzen lagunduak haste hastetik eta beti laguntzen, hauk gainerat *Europa Ekologia*-rekin eta Europa osoan egin ahala eskuz esku lanean artzeko prest direnak. Eusko Alkartasuna ere hor bere indar bereziki.

Alde eskas batzu halere, prentsa instituzionalak guti aipatu nahi dituenak: Hala nola, hauteskunde hoietan parte hartze hain tristea ez ote den indarrean diren Paristar eta Madrildar gobernuek berek (hemen UMP) bestaldean (PSOE) xekatzeko zutena? Ez baitute orobat tirriarik edo interes handirik sortu Europako errealtatearen ekonomia, sozial, kultura eta politikaren alderat.

Nolaz da beren kazeta, telebista, irrati eta hanbat komunika tresnetan ez dutela kasik gutienik ere aipatu ere zer den Europa, zertarako den, zer den hemen zinez jokoan, zer behar den egiazko giza multzo eta herriak aintzinzatzeko? Ez da beraz harritu behar hemen edo han, hain guti izan direla bozkatzaileak! Ahalgingarri ere! Ala etzuten nahi ere jende xumea joan zedin bozkatzerat? Ahalaz beti berak irabazdu ateratzeko? Eskuindarrak eta hauen lagun hurbilak! Aspalditik jakina dela, gobernari hoiek badakitela trikimailu erabiltzen! Eta ere eta horrela,

inguruan, jende frango engainatzen! (Demokrazia ttipia holakoa!)

## 🌱 CONGRES EXTRAORDINAIRE DE EUSKO ALKARTASUNA.

La tenue d'un congrès extraordinaire décidée à la suite de ses très mauvais résultats aux élections autonomiques d'Euskadi, retient l'attention de tous les militants EA.

D'autant plus que certains de ses élus guipuzcoans ont décidé, juste avant le congrès, de propulser leur propre parti dénommé Alkarbide. Les choses ne sont donc pas au plus simple. Néanmoins, la direction d'EA a proposé deux rapports (Politique et Statuts) de quelques 70 pages qui doivent marquer l'orientation actuelle du parti pour ces 3 prochaines années, avec point de mire les élections provinciales et municipales du printemps prochain dans les 4 provinces du sud du Pays Basque, comme aussi les élections régionales de mars prochain en Labourd, Basse Navarre et Soule.



**Pello Urizar de Mondragon / Arrasate devrait être le nouveau responsable de EA**

Euskadiko hauteskunde autonomikoetan EAK altxatu emaitza txarren ondorioz erabakia izan zen berehala kongresu berezi baten egitea. Geroztik gertatu da ere EAKo Gipuzkoar hautetsi batzuek beren alderdi berri bat abiatu dutela gutienik ustean, kongresuari hain hurbil. Diotela Eusko Alkartasuna bere oinarri politikoetarik urrundu dela eta hortik heldu dela azken boz galtze garrantzitsua.

Kongresu bereziak lehenik aztertze edo eztabaidatzeko eskutan ditu jadanik alderdiko zuzendaritzak prestatu bi txosten garrantzitsu, bata Politikaz, bestea Estatutueta. Alde huntarik joan beharrak ere dira horratz hamar EAKide kongresuaren harat hurat guzietan beti bezala bozkateko ahalarekin. Dударик ez da txosten hoiek beren eragina izanen dutela heldu diren bi urtetan alde batean bezala bestean izan beharrak diren hauteskunde apailatzen, lurradle ta herriko hauteskunde EH hegoaldean, Akitaniakoetan EH Iparraldean.

## DEMAIN, ON FERA MIEUX ?

Le 7 juin, jour des élections européennes, fera date sans aucun doute dans le panorama politique du Pays Basque dans son ensemble, nord et sud, par rapport à l'Europe.

Outre que cette consultation majeure s'est déroulée comme dans une impréparation inacceptable des gouvernements français et espagnols et des médias institutionnels en général, les circonscriptions imposées aux Bretons, Alsaciens, Basques (pour ceux ci grand sud ouest au nord, état espagnol tout entier ! au sud) n'ont rien facilité évidemment et ont été un affront à la conception même de l'Europe. Aussi peut-on comprendre dans un sens que certains partis basques aient été bien (ou trop !) tentés de ne se présenter quasiment qu'en territoire basque, en Labourd, Basse Navarre et Soule. Mais combien parmi leurs électeurs savaient que leurs votes ne pouvaient influencer dans le partage des sièges de députés ?

Le coup de force est venu néanmoins d'AB et d'EA pour avoir su s'allier aux autres composantes d'Europe Ecologie, via, par les sommets, l'ALE et R&PS. C'est que le respect de l'option européenne et des électeurs était uniquement à ce prix.

Aujourd'hui, les résultats sont là avec 2 députés (l'un altermondialiste, l'autre Verte) qui sauront, nous en sommes convaincus, être attentifs autant à l'Europe entière qu'à ses divers territoires dits « régionaux » comme ici, concrètement, dans la circonscription du grand sud ouest, le nord de la Catalogne, une bonne partie de l'Occitanie et cette petite portion du Pays Basque dénommée d'ailleurs assez imparfaitement « Pays Basque nord » comme s'il pouvait exister par lui-même !

Mais quelle autre perspective, c'eût été, si tous les courants abertzale progressistes avaient fait l'effort politique de se regrouper et d'aller ensemble à cette consultation ! Gageons que cela se produira aux prochaines européennes dans 5 ans. Ne peut-on s'y préparer dès maintenant ?

Il en est de même pour les forces abertzale du sud qui, au lieu de s'éparpiller, auraient mieux fait, au moins dans le camp des gauches abertzale, d'appuyer, par exemple, la liste d'inspiration ALE, Herrien Europa « Europe des nations » qui pourtant s'affichait sans ambiguïté « indépendantistes et de gauche / Independentistak eta ezkertiarak ! ». En procédant de la sorte, ces derniers auraient pu arracher avec aise un second eurodéputé et le Pays Basque aurait été meilleur gagnant.

Comme quoi, il est important pour les partis de savoir s'allier à d'autres relativement proches, sans chercher d'abord à se compter. Et pour influencer où ? Comment ?

**Ezkerreko behari abertzalea**

## DECLARATIONS DE DANIEL COHN-BENDIT, DIMANCHE 7 JUIN, VERS 22 HEURES...

« Nous devons avoir le cœur chaud et la tête froide... Ce résultat nous donne une obligation : ne pas décevoir ces millions de citoyens qui nous ont fait confiance, ni ces milliers de militants qui ont découvert une autre manière de faire la politique. ». « Quand on connaît les associations, on sait qu'elles ne changent pas facilement. Quand on connaît les Verts, on sait qu'ils ne changent pas

facilement. Mais sans vouloir être grandiloquent, rien ne sera, ou plutôt ne devrait être, comme avant ! »

## DECLARATIONS DE YANNICK JADOT, ELU DANS LA CIRCONSCRIPTION DE L'OUEST ...

« Europe Ecologie a réussi son pari avec plus de 2,8 millions d'électrices et d'électeurs qui ont répondu à son appel, démontrant que l'Europe et l'Ecologie peuvent constituer des thèmes fédérateurs et engendrer une dynamique politique et électorale. Loin de la tentation démagogique du repli franco-français, les électrices et les électeurs ont saisi le véritable enjeu de ces élections européennes : l'impérieuse nécessité de doter l'Europe d'un projet politique bâti autour de la transformation écologique de l'économie et de la société. Avec 16,64 % des voix et 417 232 électeurs, Europe Ecologie est la troisième force politique dans l'Ouest pour ce scrutin. Nous arrivons en seconde position en Bretagne, dans les Pays de la Loire et dans la plupart des grandes villes.

...



Face à l'urgence, la gravité et la convergence des crises, l'heure n'est ni au pessimisme, ni au renoncement. Elle est à la mobilisation des intelligences et des savoirs, à l'invention et à l'imagination. Elle est aux solutions réalistes et radicalement réformatrices, essentielles à la sauvegarde de nos démocraties, de nos modèles sociaux et plus généralement du rapport de l'homme à la nature.

...

Dans les semaines qui viennent, les 500 groupes locaux d'Europe Ecologie, les 15.000 signataires de notre Manifeste devront déterminer ensemble, avec toutes les composantes qui ont participé au succès des listes Europe Ecologie, les moyens, les objectifs et le calendrier de la métamorphose de l'écologie politique. Plusieurs rendez-vous sont déjà fixés qui s'adressent à toutes et tous, pour prolonger l'aventure et échanger nos réflexions sur le bilan de ces élections européennes et les perspectives qu'elles ouvrent. C'est l'Ecologie Day d'Europe Ecologie le 4 juillet prochain, les journées d'été des Verts et du Rassemblement à Nîmes du 20 au 22 août et **celles de Régions et Peuples solidaires en Bretagne également à la fin du mois d'août**, et enfin une convention nationale à l'automne. Notre prochaine grande mobilisation sera à l'évidence le sommet de Copenhague sur le climat en décembre. C'est l'avenir du climat et donc de l'humanité qui s'y décideront.

...

Nous creuserons ainsi ensemble, le sillon de l'écologie du XXIème siècle, celle qui porte avec fierté et conviction, et en toute autonomie, ses propres valeurs, celle de la transformation effective de notre modèle de société.

L'aventure continue ! A bientôt. »



## GURE BAZTER EDERRAK

Alors qu'un rallye de motards était organisé le weekend du 1er mai sur la côte, ce mois de mai a démontré que nous savons allier convivialité, amour et respect de la nature au travers de toutes les courses ou randonnées à pied à cheval ou en VTT autrement plus efficaces pour la découverte.

Nahiz Telethon edo bihotz oneko ostatuetaz ere arranguratzan diren, berek diotenez, helburu lehena dute elgarrekin memento on baten iragaitea, hor ari naiz motozale amorratu batzuetaz.



**Le VTT, sport en harmonie avec la nature**

Maiatzaren lehen asteburukari, Frantzia estatu guzitik bai eta bertze batzuetarik ere, etorri zaizkigu beren tresna miresgarrien erakustera gure bazter ederrak doi bat pozoindatuz halere.

Alta bada elgarrekin memento on batzuen iragaiteko bertze molderik. Galdegin Bidarraiko lasterkariari, Hazpamen *Ezkia oinez* hortan parte hartzen duteneri, Hiriburun 24 urte hauetan *Ezkongei Lore* zoin lehenka egiten duten haur ta heldueri. Ez direa hor ere *Stations vertes* deitu herriak, hala nola Donapaleu, Kanbo, Sara, Senpere, Azkaine, oinezko ibilaldiak, bertzeak bertze, eskaintzen dituztenak aspalditik? Larzabalen ere, oinez, zaldiz edo VTTez baziren ibilaldi batzu antolatuak bide ezberdinez, bakotzak bere medioen arabera. Maiatza honetan bazter ederrik ikusi dutela horiek denek, vrum, vrum egin gabe!

## URAK

**Un collectif d'une cinquantaine d'associations dénommé Cap'Eau préconise la prévention pour avoir des eaux en bonne santé.**

Cap' Eau, Aturri Garonan uretaz arranguratzan den kidegoak 50 bat alkarte biltzen ditu. Podere publikoek uren %60en garbitzea dute helburu. Cap' Eau hunek Sepanso, ELB, Bio Aquitaine barne dituela, duda mudak dauzka. Dio hobe dela ura zikindu ta garbitzea baino behar dena egitea ez zikintzeko, hala nola, peztizidak baztertuz, urtatzekak ttipituz, (adibidez arto mailan), laborantza bio bultzatuz, elur faltsu egitea utziz ta abar... Bere xeden hedatzeko 13 fitxetan bere ikusmoldeak emaiten dizkigu gai horietaz, zertan giren ta nola joka. Ohartarazten ere gaitu behar gabeko ur erabilpenak lagunduak direla zuhurrak baino gehiago. Lastima!

## ON DAKIGULA !

**Ici où là, des cantines scolaires ont commencé à servir des repas bio aux élèves. Le centre de formation des apprentis agricoles (CFA) d'Hasparren proposera en septembre prochain un diplôme à l'installation en agriculture bio.**

Dela Azkainen, dela Garazin, ikastetxetako haurrek jantegi edo kantinetan bio apairu jateko parada ukan dute lehen aldikotz. Ez da haatik hortan geldituko Paxkal Garaziko sukaldaria.



**Certaines cantines commencent à servir des repas bio**

Emeki emeki izanen dira ikasle horientzat gero ta jateko bio gehiago apairuetan. *Goizetik* Zuraideko egitura bat dute hornitzaile.

Hazparneko laborantza ikastetxean heldu den irailetik hara, laborantza biologiko bati buruz diploma bat apailatzekoa dute.

## EKINTZA IRAUNKOR

**Faut-il parler développement durable ? Arrêt aux gaspillages ? Consommation raisonnée ? Décroissance ? En tous les cas, c'est un sujet qui a incité des communes à motiver ses citoyens au respect de l'environnement : cultures bio, tri et mieux encore diminution des déchets, problèmes autour de l'eau (mer, rivières, assainissement).**

Baionan baratzezainek atek ideki dituzte erakutsiz nola gure baritze ttipietan ere kutsadura gutitu, har berezi batzu edo marigorriak erabiliz mamutxa batzuen jateko; gisa hartako soropilak hautatuz belar mozteak bakantzeko; egin ahala belar tzar pozoin guti ezarri adibidez lurra lastoz estaliz; landare iraunkorrak hobetsi; lurren ontzeko behi edo zezen adar xehakatu ta ongarriak erabili; higuintzen ditugun bareak garagardoan ito. Kanaberak ere ikus daitezke, hauek, diotenez, bertze zuhaitzek baino CO2 gehiago iresten dutela.

Angelun, bertzeak bertze, ikastetxe batzuetako haurrek ikasi dute ondarkinen berexten. Funtsean, dela Bizi Garbiak, dela Bil ta Garbik, dela Errobik, haur ta heldueri buruz muntatu dituzte ondarkinetaz argitze ekintzak.

Han ta hemen, landare ta hazi trukaketek ukan dute arrakasta, Bokale ta Arbonan bezala.

Azpimarratzekoa Uztaritzen *Amis de la forêt d'Ustaritz* ta *Erleak* elkartek nola erlen bizia ezagutarazi duten, Haitzekoborda eremuko biziare ere goza zaitekela. Ezti mota asko bezala, propolis delako goma hura edo ezko egiteko, nola erlek loretan hartzen duten eztigaia. Erleak beharrezkoak ere direla adibidez fruituen ukaiteko, nork ez daki? Ez ahal dauzkute pestizida horiekin pozoindatuko!

**Kattalin Gorri**

## R& P.S. EN DEKLARAPENA EUROPAR HAUTESKUNDEEN ONDOREN

Max Siméoni-ren ondotik, hogoi urteren buruan autonomista bat bilakatzen da Europako deputatu: François ALFONSI, Osaniko auzapez, Korsikako PNC alderdiko bozeremailea, orain Europako parlamentuan *Régions et Peuples Solidaires* federazioa ordezkatu duena Buselassen eta Estrasburgon, erakunde honen buruzagietarik izanez ere jada bera.

*Europe Ecologie*-koen zerrendan bigarren zela Frantziako *Hego - Iguzki* alde deitu bozka eremuan, BERDE / ALE-koen deputatu multzoan jarriko da hau Eskoziar, Gales, Katalan eta Euskotar deputatukin betan, talde hau orain indartsuago ateratzen dela ere.


*Europe Ecologie* zerrendako elkarketak ardietsi duen bitoria edo garraipenak erakusten du hiritarrek ekologiaz eta sozial arazoez duten arrangura. François Alfonsi-ren deputatu izendatzeak erakusten du, denbora berean, jendek ez duela onartzen ez Europan ez Frantzia sistima politiko zentralistarik eta nahiago dutela izaitekotz Herrien eskubideak zainduak izan ditezten.

Daniel Cohn-Bendit-ek aintzin ikusten baitzuen ekainaren 7a Ekologiaren Egun nagusia zela, R&PS federazioak ikusi nahi du ere hor Alsaziar, Euskotar, Bretoi, Katalan, Korsikar, Okzitan, Saboiarren Eguna. Garrantzizkoa...

*Berlineko harresia* orai hogoi urte hautan eroria dela, guk sinetsi nahi dugu *harresi jakobinoa* eroriko dela, Estatu nazioen harresia. Aldiz Herrien eta eskualdeen Europa federala etorriko dela, elkartasun eta efikazitate gehiagoz jasaiten dugun krisi sistemiko honi ihardokitzeke.

## LE JOUR « J » DES PEUPLES ET REGIONS SOLIDAIRES.

Vingt ans après Max Simeoni, un autonomiste devient Député européen : François ALFONSI, Maire de la Commune d'Osani, porte-parole du Parti de la Nation Corse (PNC) représentera à Bruxelles et Strasbourg la fédération Régions et Peuples Solidaires dont il est aussi l'un des dirigeants.



Élu en deuxième position sur la liste Europe-Ecologie dans la circonscription du Sud-Est, il siègera au Parlement européen dans le groupe Verts/ALE et participera à sa composante *Alliance Libre Européenne* (avec des députés écossais, gallois, catalans, basques...) laquelle sort d'ailleurs globalement renforcée de ces élections.

La victoire du regroupement *Europe-Ecologie* montre la grande préoccupation des citoyens pour les questions écologiques et sociales. L'élection de François Alfonsi manifeste en même temps le rejet d'un système politique centraliste au niveau européen comme au niveau français et la volonté de voir les droits des Peuples respectés.

Daniel Cohn-Bendit annonçait que le 07 juin avait été le D-Day de l'Ecologie. R&PS veut y voir aussi le jour « J » des alsaciens, basques, bretons, catalans, corses, occitans, savoyards...

Vingt ans après l'effondrement du « mur de Berlin », nous voulons croire à l'écroulement du « mur jacobin », qui est aussi celui des Etats-Nations, et à l'avènement d'une Europe fédérale des Peuples et des Régions, plus solidaire et plus efficace face à la crise systémique qui nous affecte.

## UNIVERSITE D'ETE ET CONGRES R&PS EN BRETAGNE

23 – 27 Août

Pour la 14ème année consécutive, R&PS organise cette année son Université d'Eté et Congrès en Bretagne. Du dimanche 23 Août au jeudi matin 27 Août à LANDREGER (Tréguier) - Côtes d'Armor, à l'invitation de l'UDB (Union Démocratique Bretonne).

Trois thèmes en débats : Rôle des Régions dans la lutte contre le changement climatique, la question des Institutions territoriales, la crise (réponses européennes et régionales avec l'ALE / Alliance Libre Européenne).

Mardi après midi : détente et découverte. Sortie dans le Trégor (aspects économiques et touristiques sur la côte de granit rose), suivie d'une soirée festive.

**Programme ouvert à tous les intéressés.**

Mercredi 26 : **Congrès de R&PS** réservé aux délégués des partis membres : UDB, POC, PNC, ERC, CDC, EA, MRS, etc...

Cette année, Université d'été et Congrès prendront évidemment un relief particulier avec l'élection de François Alfonsi comme Eurodéputé autonomiste corse !

Contact en Pays Basque : Eusko Alkartasuna, tel : 06-08-63-05-12 avant le 15 août.

## R&PS EN UDAKO UNIBERTSITATEA ETA KONGRESUA BREITAINIAN, (UDB REN GOMITAREKIN).

09 – 08 – 23 / 09-08-27

Nahi dituzu frantses estatuko beste herri zapalduen alderdietako kide batzu ezagutu, hoiekin eztabaidatu?

Parada on bat laster! Abuztuaren edo agorrilaren 23 tik 27 rat LANDREGER en, Breitainiako ipar itsas hegian. François ALFONSI R&PS-en Eurodeputatua eta PNC korsikar aderdi autonomistako sustatzaile ezaguna ere hor dela...

Mintzaldi, eztabaida, solasaldi, bazter ikuskatze eta adiskiden arteko harreman bero, lasaiki!

Kontaktatu bat: EA-Labenzu (Lapurdi, BeNafarroa, Zuberoa) Tel: 06-08-63-05-12

## EZ DUGU BEHARRIK !

**LGV, dernier épisode ? Après une entrevue avec MAM et le président de RFF, D. Bussereau, secrétaire d'état aux transports, décide d'arrêter les études à propos de la LGV au nord du Pays Basque. Tollé de réactions de la part de certains élus bordelais et autres qui prétendent que Tours-Bordeaux est compromis, ce qui est inexact. On a les arguments que l'on peut !**

Badu zenbait denbora trenbide berri bat sakatu nahiz ari zaizkula Bordele ta hurbilagoko hautetsi batzu. Harritzekoa! Baditugu, zorionez, hautetsi zentzudunak ere.

Mugerre eta Uztaritzeren ondotik Hiriburu, Lehuntze ta Milafrangako jendek bozkaz erran dute gehiengo handiz ez dutela behar gabeko diru xahutze ta bazter xehatzerik nahi. Ez ote du Suisako etxe berezitu batek ere errana ez dela burdinbide berri horren beharrik? Oraikoa behar bezala antolatuz geroz, nasai badela behar den guzia. Ba ote dakite irakurtzen? Burdinbide berri horren alde ari zaizkularik jaun handi horiek, ez dute sekulan aipatzen oraiko hori nolaz ez den aski! Ez eta frêt hori gutitzen ari dela!

Azken berrietan iduri luke MAM andereak ardietsi duela, hemengo hasteko, istudioak gelditzea, hasarre batzu sortaraziz, bankoko karta galdu balute ez bailitazke minberakorrigo izanen! Kuku Grenelle!

**Kattalin Gorri**

## HOME

9 millions de téléspectateurs, sans compter « les diffusions en 40 langues dans 126 pays » nous dit le Canard Enchaîné N°4624. Un film magnifique qui est une alerte aux pollutions en tous genres. « Nous épuisons notre planète ».

Un film de Yann Arthus Bertrand gratuit mais le mécène n'est autre que François Henri Pinault, patron de Pinault Printemps Redoute qui en profite un peu tout de même pour se faire de la promo. Mais ce patron serait-il en train de penser comment vendre des produits moins énergivores qui généreront moins de déchets électroniques ou pas ? Réfléchirait-il pour le transport de ses marchandises à un moyen autre que les 100 à 400 poids lourds (selon les commandes) par jour et plus de 700 véhicules utilitaires qui desservent 27 agences de la Redoute ? (Le canard Enchaîné n°4623).

Les fauteuils chinois empoisonnés, du passé ? Conforama financerait la plantation de 10 ha de forêt dans l'Isère, dont les effets ne se feront sentir malheureusement que dans 30 ans !

Parallèlement, notre 1er ministre renoncerait-il à son projet de nouveau circuit de courses automobiles, en accord avec Christian Blanc qui en voulait un, lui, à Sarcelles ? Et les 24 heures du Mans, interdits ?

Les pesticides, la chimie dans les aliments industriels, les produits transgéniques interdits ?

Quant à la poubelle de Salindres (Gard) à 9km d'Alès et qui s'étend sur une centaine d'ha, culmine à 35 m, contient 11 millions de tonnes de résidus industriels : hydrocarbures, arsenic, dérivés de chlore, fluor, chaux etc... dont la direction régionale a classé l'affaire (Canard Enchaîné n°4621) qu'en fera t-on ? Les sites AZF ai lleurs

comme ici, tout près, au Boucau, par exemple, et cette gabegie qu'on s'apprête à mettre en place avec la LGV2 dont Victor Pachon a prouvé l'inutilité et que la population locale refuse. Et pour cause !

Yann Arthus Bertrand soulève un grand débat. Sera t-il suivi d'effets ?

**Argitxu**

## EUSKAL PEN CLUB-AREN SARIA TXOMIN PEILLEN-ENTZAT

Txomin Peillen Zuberotar EA kide intelektual ospetsuari eman diote ekainaren 12 an Bilbon "Euskal Pen idazluma" sari berezia. Zorionak zuri, Txomin laguna!

Jadanik 1951 aldean bera ere ibilia erakunde horren utik ezartzen Jokin Zaitegi, Federiko Krutwig, Ibinagabeitia, Mirande eta beste zain hortako idazle handiekin. Hainbeste lan ibilirik, dotzenaka liburu etnografiaz, hizkuntzalaritzaz bai eta ipuin eta eleberri sortzen, 5 sari handi ere lorturik, literatura sorkuntzan gehienik umorea, fantastikoa, politika, poliziakoa eta erotikoa erabiltzen ditu Txomin ek. Gora zu eta aintz urtez!



**Txomin Peillen Xiberoako EAkidea Sarako liburu azokan**

## OMORE BILA

### Revue militaire

Un général passe une troupe en revue.

Il administre à un premier soldat un coup de pied au c.

« Est-ce que ça fait mal ? » - « Non ! lui répond le soldat. Je suis basque moi ! et trop fier d'appartenir à l'armée française ».

A un 2ème soldat il administre une belle torgnole en pleine figure. « Alors, ça fait mal ? » lui demande-t-il. Réponse : « Non pas du tout ! Moi, suis Alsacien ! et pourrais vous en mettre une plus belle ! ». (Le général fait mine de ne rien entendre et poursuit la revue) en plantant une baïonnette au bout du pied d'un 3ème soldat. « Ça fait mal ça ? » lui demande t-il. Et ce dernier de lui répondre : « c'est que je suis Breton, moi ! Et je ne chausse que du 32 et l'on m'a donné du 43 ! »

**Larreko Manex**

## EKITALDIAK

**Ekainak 20 - 21:** EAren kongresu berezia Gasteizen.

**Ekainak 27:** "Aupa Etxebeste" filma Lekornen

**Uztailak 3 - 5:** Festival Euskal Herria Zuzenean à Hélette. Contact: 0559702008.

**Uztailak 6 - 10:** Udako Euskal Unibertsitatearen udako ikastaroak Baionan. Tel: 0621685671.

**Uztailak 26:** Pastorale Belhagileen Trajeria à Alos. Réalisé entre autres par Dominika Rekalt, Jan-Pierra Rekalt, Mixel Etxekopar, Niko Etxart, Erramun Garcia.

**Abuztuak 23 - 27:** 14ème Congrès de R&PS en Bretagne.

**Urriak 24:** DEIADAR, euskararen aldeko elgarretaratzea Baionan, <http://www.deiadar.org>.

## ABONNEMENT HARPIDETZA

15 € urtean / par an

Izena / Prénom : .....

Deitura / Nom : .....

Helbidea / Adresse : .....

Txekez / Par chèque

Intsuldaketaz / Par virement :

• Euskadiko Kutxako 3035 0059  
83 0590078339

• Crédit Agricole : 16906 10028  
51017066341 95

✉ **ZUBIAK, 34 rue  
Pannecau, 64100 Baiona**  
e-mail : [aldizkaria@zubiak.org](mailto:aldizkaria@zubiak.org)

☎ 0559255098

Fax : 0559255098

[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)

[www.ea-labenzu.org](http://www.ea-labenzu.org)

Parti Socialdémocrate  
Basque  
et fédéraliste européen



ZUBIAK, n°32  
ISSN 1771-0464

Imprimeur : Imprimerie Artisanale, 14 rue

Pannecau, 64100 Bayonne / Baiona

Editeur : Zubiak, 34 Pannecau, 64100 Baiona

Prix : 2 €

Date : 2009 Juin / Ekaina

## ELKARRIZKETA

## INTERVIEW

### SABIN INTXAURRAGA, HAUTESKUNDEI ETA EA-RI BURUZ

Sabin Intxaurreaga, diplômé en sciences économiques et économie d'entreprise, ancien parlementaire d'Euskadi et ministre de la Justice, Economie et Sécurité sociale, comme aussi ancien ministre de l'Education nationale basque, des Universités et de la Recherche au Gouvernement Autonome basque, comme aussi promoteur de bien d'autres secteurs (Environnement, aménagement territorial etc...) il est aussi largement polyglotte et est aussi intervenu à plusieurs titres institutionnels en divers points du monde (Belgique, Argentine, Brésil, Indonésie, Chili...). Candidat pour EA dans la coalition Independentistak eta Ezkertiarak / Indépendantistes et de gauche avec la formation Aralar, parvenant à gagner un Eurodéputé, il nous livre ici ses réflexions sur sa récente campagne électorale en Euskadi et Navarre comme sur la tenue du prochain Congrès extraordinaire de EA.

### Hauteskunde europarretan lortu dituzuen emaitzetaz zer diozu?

Eusko Alkartasuna Hegoaldean betidanik aurkeztu izan da *Herrien Europa* koalizioan ALEko beste alderdi batzuekin batera eta beti lortu izan dugu eurodiputatu bat. Bere garaian Carlos Garaikoetxea, ondoren Gorka Knorr eta azken legegintza hontan Mikel Irujo izan ditugu Estrasburgoko Europar Legebiltzarrean euskal ordezkari moduan. Oraingo hontan helburu berdinekin aurkeztu gara eta lortu izan dugun ezkerreko eurodiputatu bat pozik gaude, nahiz eta itxaroten genuen emaitza hobeak lortzea Aralar ere koalizioko kide izan baita. Dana dala, kanpainan zehar agindu genuen oraingo legegintzaldian ere euskaldun abertzale independentista, aurrerakoi eta ezkertiar bat izango zala Estasburgon eta Bruselan euskaldunon interesak eta Europa Sozial baten alde lan egiten eta hala izango da.

### Zer somatu duzu gehien egin duzun kanpainan?

Alde batetik alderdi gehienak Europako Legebiltzarrerako kanpaina egin beharreean estatuko hauteskunde orokorrak izango balira bezela egin dutela kanpaina eta beraz Europan zer egingo duten proposamen gutxi egin dituzte. Bestalde, komunikabideek ere garrantzi gutxi eman diote kanpainari eta horren ondorioz partehartze txikia izan da.

### Zer dira Herrien Europa egiazko bat lortzeko trabak gaur egun?

Aurtengo urtean Lisboako Tratua onartzen baldin bada Europako Legebiltzarrak eskumen legegile gehiago izango ditu, baina hala ere ohiko Parlamentuek baino askoz gutxiago. Gaur egun Europako erakunde amankomunen oinarria estatuetan dago eta erabaki garrantzitsuenak Ministroen Kontseiluetan erabakitzen dira, estatuek ez baitute arlo askotan euren subirautza Europako Legebiltzarraren eta Komisioaren esku uzterik nahi. Horregaitik Europa Federala aldarrikatzen dugu europazale garen askok, Herrietan oinarritua eraiki dadin eta beraz herritaren partehatzea bermatuko duena eta herritarrengandik gertuago izango dena.

### Eusko Alkartasunaren Kongresuaz baikor zaude oraitik? Zer behar litaik gehien bat erabaki hor?

Ni oso baikor nago. Euskal Herriak alderdi abertzale, independentista eta sozialdemokrata bat behar du eta lan hori orain artio Eusko Alkartasuna bete du eta hala egiten jarraituko dugu hemendik aintzina. Hortaz gain, ene uste apalean, independentziaren motorra abian jartzeko ezinbestekoa da - bide zibil, baketsu, politiko eta demokratikoetan soilik babestuz - beste alderdi eta eragile abertzale independentisten arteko lankidetzaren estrategikoa bultzatzea eta uste dut EAren Kongresuak horren aldeko apustua egingo duela. Beste modu batera esanda, Iparraldean Euskal Herria Bai koalizioa osatuz EAk eta beste alderdi abertzale batzuek egin dugun antzera, eta baita neurri batean Nafarroa Garaian Nafarroa Bairekin, antzerako elkarlana Euskal Herri osora hedatu beharko litzateke.

Sabin Intxaurreaga

